EIBARKO UDALA
www.eibar.net

# [e]kultura

IRAILA 2010 *SEPTIEMBRE*

**90**



erakusketa / exposición
## Fernando Beorlegui

## Arrateko Amaren Jaiak

## Mikel Gaztelurrutia & The New Jazz Voices Ensemble

## IRAILA 2010 SEPTIEMBRE


**eguna** *día* — **orr.** *pag.*

**1** UMEAK ESKOLARA
*AYUDAS A ESTUDIANTES*
**dirulaguntzak *ayudas*** . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
DIBUJO UDAL ESKOLA
ZERAMIKA UDAL ESKOLA
**matrikulazioa *matriculación*** . . . . . . . . . . . . . .
BEGIRALE TITULUA ATERATZEKO IKASTAROA
*CURSO DE OBTENCIÓN DEL TÍTULO DE MONITOR*
**matrikulazioa *matriculación*** . . . . . . . . . . . . . .
*POTENCIACIÓN DE LA CREATIVIDAD*
**matrikulazioa *matriculación*** . . . . . . . . . . . . . .
AEK EUSKALTEGIA
**matrikulazioa *matriculación*** . . . . . . . . . . . . . .

**2** UDAL EUSKALTEGIA
**matrikulazioa *matriculación*** . . . . . . . . . . . . . .

**6** ARGAZKIGINTZA DIGITALA: LEHEN URRATSAK
*INICIACIÓN A LA FOTOGRAFÍA DIGITAL*
**matrikulazioa *matriculación*** . . . . . . . . . . . . . .

**7** ARRATEKO AMAREN JAIAK
**jaiak *fiestas*** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

**8** ARRATEKO AMAREN JAIAK
**jaiak *fiestas*** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

**11** *LA VIRGEN DE LA BIEN APARECIDA*
**jaiak *fiestas*** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

**12** ARRATEKO AMAREN JAIAK
**jaiak *fiestas*** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

**17** FERNANDO BEORLEGUI BEGUIRISTAIN:
GOGOAREN PINTZELADA GARRATZAK
*PINCELADAS ÁCIDAS DEL PENSAMIENTO*
**erakusketa *exposición*** . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

**18** *LA VIRGEN DE LA BIEN APARECIDA*
**jaiak *fiestas*** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

**19** ARRATEKO AMAREN JAIAK
**jaiak *fiestas*** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
*LA VIRGEN DE LA BIEN APARECIDA*
**jaiak *fiestas*** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

**20** AFARIKETAN
**matrikulazioa *matriculación*** . . . . . . . . . . . . . .








1

2







20





















## IRAILA 2010 SEPTIEMBRE

eguna / día — orr. / pag.

**21** AFARIKETAN
**matrikulazioa *matriculación*** . . . . . . . . . . . . . .

**22** *BEORLEGUI: EL DANDI Y EL ESPERPENTO*
**hitzaldia *conferencia*** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
AFARIKETAN
**matrikulazioa *matriculación*** . . . . . . . . . . . . . .

**23** AFARIKETAN
**matrikulazioa *matriculación*** . . . . . . . . . . . . . .

**24** MIKEL GAZTELURRUTIA & THE NEW JAZZ VOICES ENSEMBLE
**musika *música*** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
AFARIKETAN
**matrikulazioa *matriculación*** . . . . . . . . . . . . . .

**25** *100% TRICICLE*
**antzerkia *teatro*** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
ERREKA MARI
**zapatuko ipuina *cuentacuentos*** . . . . . . . . . . .
*LA VIRGEN DE LA BIEN APARECIDA*
**jaiak *fiestas***. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
AFARIKETAN
**matrikulazioa *matriculación*** . . . . . . . . . . . . . .

**26** *BANDA DE MÚSICA* CIELITO MUSIKA BANDA
**musika *música*** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

**28** AGINAKO JAIAK
**jaiak *fiestas***. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

**29** AGINAKO JAIAK
**jaiak *fiestas***. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

## URRIA 2010 OCTUBRE

**2** AGINAKO JAIAK
**jaiak *fiestas***. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

**3** AGINAKO JAIAK
**jaiak *fiestas***. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

# FERNANDO BEORLEGUI BEGUIRISTAIN: GOGOAREN PINTZELKADA GARRATZAK *PINCELADAS ÁCIDAS DEL PENSAMIENTO*

**irailak 17 *septiembre* - urriak 12 *octubre*  PORTALEA**

## *Un homenaje a Fernando Beorlegui*



*Portalea acogerá este mes de septiembre las obras del aclamado pintor **Fernando Beorlegui**, una exclusiva exposición recordará la figura del querido artista. El trabajo de Beorlegui estuvo marcado por una gran producción a lo largo de toda su trayectoria artística. Alrededor de 100 obras compondrán la muestra artística en homenaje al pintor que se inaugurará en Portalea el próximo 17 de septiembre y que permanecerá abierta hasta el día 12 de octubre. La exposición cuenta con pinturas, grabados, dibujos y esculturas.*

*Aparte de la de Eibar, la exposición también se ha llevado a cabo en Zarauz durante el verano y próximamente tendrá lugar en la localidad navarra de Estella. Junto con la de Eibar, estas dos localidades fueron muy significativas en la vida del artista y todos han querido conmemorar sus trabajos.*

***Fernando Beorlegui** falleció el 6 de enero de 2008 y desde entonces, su familia comenzó un trabajo de recopilación de su obra y su material que tendrán como primer destino las exposiciones que se han preparado a lo largo de este año. Los trabajos de preparación están sirviendo para completar una base de datos con su legado, y su hijo, **Mikel Beorlegi,** es quien está llevando a cabo todo este trabajo con la ayuda de numerosas personas.*

*Precisamente el día 22 de septiembre se presentará un libro titulado "Fernando Beorlegui", obra del hijo del artista. Ha conseguido catalogar y elaborar una ficha técnica de unos 500 cuadros que llegó a pintar Beorlegui, y ha elaborado un libro que recoge toda su trayectoria.*

**HITZALDIA** CONFERENCIA

# BEORLEGUI, EL DANDI Y EL ESPERPENTO

**Mikel Beorlegi - Rafael Castellanos**

**irailak 22 *septiembre***  19:00  **PORTALEA**

babeslea  **AULA DE CULTURA DV**  *patrocina*



Félix Morquecho

**Mikel Beorlegi**, margolariaren semea

# "Hunkigarria eta oso berezia izan da liburu hau idaztea"

**Bihotzetik idatzitako liburua da, dudarik gabe. Nola sortu zen ekimena gauzatzeko ideia?**
Hasiera batean erakusketara bideratutako katalogo bat egitea zen asmo nagusia. Baina uste baino luzeagoa izan zen lanaren emaitza eta azkenean liburu batean gelditu da dena. Aitaren lagun handiak izan ziren hainbat pertsonarekin elkarlanean gauzatutako lanaren fruitua izan da liburua.

**Liburuak zein kutsu dauka: bibliografikoa, artistikoa?**
Denetik jasotzen da eleberrian, artistaren bizimoldea eta izaera jakitea ezinbesteko elementuak dira bere obrak ulertzeko. Horrenbestez, aitaren inguruko datu guztiak biltzen ahalegindu gara. Nik informazio bibliografikoa eta hemerotekari dagokiona egituratu ditut.

**Garrantzitsua deritzozu aitaren inguruko liburu bat argitaratzeari?**
Zinez garrantzitsua iruditzen zait, funtsezko tresna bat Fernando Beorlegui handiaren figuraren oroigarri gisa. Pena bat da bera falta delako, baina hori kontuan hartuta omenaldi txiki bat bezala gauzatutako liburua izan da, denon gogoetan jarrai dezan denbora luzez.

**Kalean da jada?**
Liburua aukezpen egunean banatuko dugu, hilaren 22an. Zarautzen banatu genuen eta Lizarran ere berdín egingo dugu. Azken finean, Kutxa Fundazioak argitaratu duen eleberria da eta nik ez dakit gerora begira salgai jarriko ote den.

**Zein da liburuaren muina, hau da, xede nagusia?**
Alde ezberdinak ditu, eta laburtu egin behar izan ditugu alderdi asko. Bi sail nagusi ditu, bata teknikoa, eta aitaren ibilbide profesionalean zehar izandako estilo eta ezaugarri ezberdinak biltzen dira bertan. Bestea, berriz, pertsonala eta artistaren izaera eta joerak jasotzen ditu sail honek.

**Lan zaila izan al da Fernando Beorleguiren ingururko denak liburu batean biltzea?**
Zaila baino gehiago, hunkigarria izan dela esango nuke. Ni arkeologoa naiz eta liburu dezente idatzi izan ditut, baina hau izan da guztietan bereziena. Urte guztia eman dugu liburuaren prestaketa lanetan murgilduta eta erakusketak gerturatu ahala denbora murriztuz joan den heinean, gero eta gogorragoa izan da lan egitea. Baina oso gustura gaude emaitzarekin.

**Oso maitatua den margolaria izan da zure aita. Harrera ona izango du liburua?**
Ez dut arrakasta izango duenaren dudarik egiten. Liburua kaleratuko zela argitaratu zenetik, zorionik beroenak opa dizkigun jende ugariren deiak jaso ditugu. Zarautzen liburua aurkeztu genuen egunean harrera izugarria eduki zuen, 200 pertsona inguru agertu ziren eta espero dut aurrerantzean ere horrela izango dela.

# MIKEL GAZTELURRUTIA & THE NEW JAZZ VOICES ENSEMBLE

**jazz kontzertua** ***concierto de jazz***

**irailak 24 *septiembre*** 20:30 5 € ***teatro* COLISEO antzokia**



*El pianista eibarrés* ***Mikel Gaztelurrutia (Eibar, 1970) llenará de sonidos jazzísticos el teatro Coliseo para presentarnos su album debut****,* ***The New Jazz Voices Ensemble*** *(Gaztelupeko Hotsak, 2009). El músico eibarrés, formado en el Taller de Musics de Barcelona y actual profesor del Conservatorio Pablo Sarasate de Pamplona, se ha embarcado en un desafío atípico, arreglando un repertorio colorista para un cuarteto de voces, y respaldado por un trío de* ***jazz*** *capitaneado por él mismo.*

*Aunque algunas de las versiones escogidas puedan parecer obvias a simple vista, todas permiten apreciar un acercamiento creativo hecho desde el afecto y el respeto por los originales, así como un trabajo concienzudo y detallado. El resultado:* ***un plato exótico que sorprenderá a los comensales que gusten de los sabores delicados****.*

*Tras numerosos trabajos con diferentes grupos y músicos, Gaztelurrutia se ha embarcado en un especial proyecto que no dejará indiferentes a los amantes de la música. El repertorio de* ***The New Jazz Voices Ensemble*** *encierra pequeñas joyas; edificado sobre un trabajo de trío tremendamente sólido, Vincent Thomas - batería-, Richie Ferrer –contrabajo- y el propio Mikel Gaztelurrutia se bastan para soportar del todo la urdimbre musical.*

*La voz es el verdadero protagonista de este proyecto, lo que le confiere singularidad: algunas de las versiones quizás pequen de cierta ingenuidad por lo manido de su elección, pero todas permiten apreciar un acercamiento creativo hecho desde el afecto y el respeto por los originales, así como un trabajo concienzudo y detallado.*

*Los no iniciados descubrirán una intachable colección de canciones en un contexto muy asequible. Aquellos a quienes les sea familiar el repertorio, podrán disfrutar de los clásicos antes mencionados con un tratamiento nada habitual.*

*Cada oyente que se acerque al Coliseo para ser testigo del revelador album del eibarrés y su banda, escuchará algún tema del que enamorarse. Excelente e irresistible carta de presentación del grupo T****he New Jazz Voices Ensemble****, encabezado por el pianista eibarrés* ***Mikel Gaztelurrutia****.*

# Jazz doinu exotikoak





Coliseo antzokia jazz doinuz jantziko da, Mikel Gaztelurrutia pianojole eibartarraren *The New Jazz Voices Ensemble* (Gaztelupeko Hotsak, 2009) estreinako albumaren aurkezpenarekin. Musikari eibartarrak, Bartzelonako Taller de Musics eskolan ikasia eta gaur egun Iruñeko Pablo Sarasate Kontserbatorioan irakasle denak, ezohiko erronkari egin dio aurre eta errepertorio koloretsua osatu du ahots laukote batentzat, Mikel bera aitzindari duen jazz hirukoteak lagundurik.

Ahotsa da proiektu honen benetako funtsa, eta horrek berak egiten du berezi: hautatutako bertsio batzuek, lehen begiratuan bederen, oso ezagunak diruditen arren, guztiek azaltzen dute jatorrizko gaiei erakutsitako begirunetik eta maitasunetik egindako sormen lan hurbila, lan sakona eta xehetasunez betea. Ezbairik gabe, proiektu exotiko bat, doinu ezberdinak maite dituztenak zur eta lur utziko dituena.

The New Jazz Voices Ensemble son...

**Mikel Gaztelurrutia:** piano, teclados, percusión, arreglos, producción, mezclas.
**Richie Ferrer**: contrabajo.
**Vicent Thomas**: batería y percusión.
**Maria Jesus Abaigar**: voz.
**Nerea Erbiti**: voz.
**Andoni Arcilla**: voz.
**Asier Arcilla**: voz.
**David Johnstone**: violonchelo en tema 1.
**Jonan Ordorika**: técnico de sonido, mezclas.

## *BANDA DE MUSICA* CIELITO MUSIKA BANDA

**kontzertua** ***concierto***



**irailak 26 *septiembre*** 12:30 ***teatro* COLISEO antzokia**

# INDALECIO OJANGUREN XXIII. ARGAZKI LEHIAKETA
# *XXIII CERTAMEN DE FOTOGRAFÍA INDALECIO OJANGUREN*

### 007/2010 ARGIZAIOLA LEHIAKETAREN SAILKAPENERAKO BALIAGARRIA
### *CLASIFICATORIO PARA EL CERTAMEN ARGIZAIOLA 007/2010*




**Dei-egilea:** Eibarko Udala, Udako Eibarko Klub Deportiboaren laguntzarekin.
**Lanak:** Gehienez ere 3 argazki zuri eta beltzean, eta 3 koloretan. Inoiz saritu gabeak izan beharko dira.
**Aurtengo edizioko berrikuntza moduan, sari berria sortu da 16 urtetik beherako eibartarrentzat. Saria 150 euroko argazkigintza materiala izango da, eta argazkirik onenari emango zaio**.

***Convoca:*** *Ayuntamiento de Eibar, con la colaboración del Club Deportivo Eibar.*
***Obras:*** *Máximo de 3 fotografías blanco y negro y 3 color por participante, no premiadas en ningún otro certamen.*
***A partir de esta edición se incluye un premio local a la mejor fotografía para menores de 16 años de 150 € en material fotográfico****.*

**EGUTEGIA / *CALENDARIO***

| | | |
|---|---|---|
| lanak aurkezteko epea | **urriak 8 *octubre*** | *plazo de admisión de obras* |
| erabakia | **urriak 16 octubre** | fallo público |
| sari-banaketa | **urriak 29 octubre** | entrega de premios |
| erakusketa | **urriak 29 *octubre* - azaroak 21 *noviembre*** | *exposición* |
| **informazioa** | **PEGORA** | ***información*** |

# "ASIER ERRASTI" EIBARKO XI. LABURMETRAIA JAIALDIA
# *XI FESTIVAL DE CORTOMETRAJES DE EIBAR "ASIER ERRASTI"*



**Dei-egilea:** Eibarko Udala, Plano Corto Kultur Elkartearen laguntzarekin.
***Convoca:*** *Ayuntamiento de Eibar, con la colaboración de la Asociación Cultural Plano Corto.*

Lehiaketan bi sail izango dira: fikzioa eta animazioa, DVDz eginda.
*2 secciones a concurso: ficción y animación, en formato DVD.*

lanak aurkezteko epea **urriak 9 *octubre*** *plazo de admisión de obras*

**informazioa** **PEGORA** ***información***

# "SANANDRESAK 2010 EIBARREN" KARTEL LEHIAKETA
# *CONCURSO DE CARTEL "SANANDRESAK 2010 EIBARREN"*

Lanak aurkezteko epea **urriak 19 *octubre*** *Plazo de admisión de obras*

**informazioa** **PEGORA** ***información***








# 100% TRICICLE

**Compañía CLOWNIC**

**irailak 25 *septiembre*** 20:00 18/20 € ***teatro* COLISEO antzokia**

**%100 Tricicle** ikuskizunari esker, ikusleriak hamaika aldiz eskatu dizkigun sketch eta egoerak antzerkian beste behin ikusteko aukera daukagu. Egunerokotasunean agertzen diren ekintza eta pertsonaiak humorerantz gidaturik aurkezten da Tricicleren taularatzea eta humorea, modari lotutako gaiak uxatu eta intenporal bilakatuz, honenbestez, urteak pasa ondoren eta antzezle ezberdinekin ere indarrean egotea ahalbidetzen du.




Zuzendaritza/*Dirección*:
**Tricicle**

Antzezleak/*Reparto*:
**Eduard Méndez**
**Antonio Del Valle**
**Jaume Ortanobas**
**Xevi Casals (Cover)**

*El **estilo Tricicle** se caracteriza principalmente por el **dinamismo, por las escenas cortas, los frecuentes cambios de personajes, las onomatopeyas naturales (y alguna palabrilla de vez en cuando), el uso dramático de los elementos escenográficos, los giros surrealistas y las sorpresas constantes**.*

***100% Tricicle** es una antología de los mejores momentos de los 7 espectáculos que ha creado Tricicle, es decir, **MANICOMIC, EXIT, SLASTIC, TERRRIFIC, ENTRETRES, SIT y GARRICK**, ahora interpretado por la compañía Tricicle 2 y dirigido por TRICICLE. En **100% Tricicle** se produce un gag cada diez o quince segundos, donde se consigue un ritmo de humor trepidante, clave de su éxito.*

***El lema del espectáculo: oír las risas del público cada diez segundos**.*

sarrerak / *entradas*: **teatro COLISEO antzokia, Portalea Taberna, Ayerbe Liburudenda, Birgiñape, Trinkete, Arno, Terraza Ipurua, Caserío**.

antolatzailea **Club Lambretta Eibar** *organiza*

# UMEAK ESKOLARA 2010

ONURADUNAK: **1995eko urtarrilaren 1etik 2008ko abenduaren 31ra bitartean jaiotako umeak. Eibarko Erroldan daudenak**.

LAGUNTZAREN ZENBATEKOA: Ume bakoitzeko, gehien jota, **60,10 €**

LAGUNTZAREN ZERTARAKOA: **Eskolarako umeak behar duen materiala erosteko -testu-libururik ez-, hau da: kirol materiala, erropak, oinetakoak...** Erosketak Eibarko dendetan egin behar dira irailaren 1etik abenduaren 1era bitartean.

*BENEFICIARIOS*: ***niños y niñas empadronados en Eibar y nacidos entre el 1 de enero de 1995 y el 31 de diciembre de 2008***.

*CUANTÍA: un máximo de* ***60,10 €***

OBJETO: **compra de material escolar - excepto libros: material deportivo, ropa, calzado...** Las compras se realizarán en establecimientos comerciales de Eibar entre el 1 de septiembre y el 1 de diciembre.



# DIRULAGUNTZAK IKASLEEI 2010
# *AYUDAS A ESTUDIANTES*

ONURADUNAK: **irakaskuntza arautuko edo lanbide-prestakuntzako ikasleei zuzenduta**. Ez dute laguntzarik jasoko ikasketa osagarriak egiten dabiltzatenek (masterrak, doktoradoa, hizkuntza, informatika-erabiltzaile, gidatze-karneta...)

**1985ko urtarrilaren 1etik 1994ko abenduaren 31ra bitartean jaiotakoa izatea**.

LAGUNTZAREN ZENBATEKOA: Ume bakoitzeko, gehien jota, **60,10 €**

LAGUNTZAREN ZERTARAKOA: **joan-etorrietarakoa, ikasketa-materiala erostekoa, kirolean jardutekoak, erropak edo oinetakoak erostekoa (testu-libururik ez) Eibarko dendetan**.

*BENEFICIARIOS*: ***eibarreses/as que se hallen cursando estudios de enseñanzas regladas u ocupacionales****, excluyéndose formación complementaria (masters, doctorado, idiomas, Informática usuario, carnet de conducir, etc.)*

***Nacid@s entre el 1 de enero de 1985 y el 31 de diciembre de 1994***

*CUANTÍA: un máximo de* ***60,10 €***

*OBJETO*: ***transporte o adquisición de material escolar, material deportivo, ropa y calzado, etc. (se excluyen libros de texto) en establecimientos comerciales de Eibar***.

**eskaerak aurkezteko epea** — ***plazo de presentación de solicitudes***

**irailak 1 *septiembre* - abenduak 1 *diciembre***

**informazioa** — **PEGORA** — ***información***

# ARRATEKO AMAREN JAIAK
# *FIESTAS de Ntra. Sra. de ARRATE*

**irailak 7, 8, 12 *septiembre***

*Como manda la tradición, miles de eibarresas y eibarreses se acercan el día 8 de septiembre a los alrededores del Santuario de Arrate para honrar, en su día, a la figura de la* ***Virgen de Arrate, su patrona****. Junto con la gente que trasnocha desde la víspera, son numerosos los ciudadanos que inundan las campas de Arrate para celebrar sus fiestas y hacerle una visita a la* ***"Ama" de Arrate****.*



## Arrateko Amaren gonapean

Arrateko jaiak duela mende ugari hasi ziren ospatzen, oso leku esanguratsua izan da beti, Eibar eta Elgoibar inguruetan Arraten sortzen baitzen bizitza. Ezkongaia behar zuenak hara jotzen zuen Arrate gainean dagoen harrizko gurutzeari kredoa edo salbea otoitz eginaz hiru buelta ematera; haurrak, beste tokietan zikoinak edo Paristik bezala, Eibar eta Elgoibarrera Arratetik ekartzen ziren.

Antzina, 1563. urtera arte, abenduaren 8an ospatzen zen **Arrateko jaia**. Baina tokia altua izanik, eta hotzaz gain inoiz elurra ere agertzen zenez, herriaren eskariz Arrateko jaia irailaren 8ra aldatzeko baimena eman zen. Aurreko mendeetan zortzi egunez ospatzen ziren Arrateko Jaiak, baina mende honetan ez da ezagutu horrelako iraupenik.

Arrateko Amari bisita, txistulariak, meza, dantzak, erromeria, txosnak... Jai girorik inoiz ez da falta eibartarren zaindariaren omenez ospatzen den egun handi honetan... **Ondo pasa jaiak!**

# ARRATEKO AMAREN JAIAK
# *FIESTAS de Ntra. Sra. de ARRATE*

## iraila 7, Arrate bezpera

- 18:00. **Meza** Arrateko Santutegian, eta ondoren, **Salbea**. Jarraian, **txupinazoa eta kanpai errepika**.
- 21:00. **Bertso Afaria: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio** eta **Julio Soto** Gaijartzailea: **Asier Ibaibarriaga.** Kantabria jatetxean. Sarrerak: 28 €. (Sagarbitxa - Kultu - Kantabria - ...eta kitto!). Antolatzailea: "... eta kitto!".



## *7 septiembre, Víspera de Arrate*

- *18:00.* ***Misa** en el Santuario de Arrate y **Salve.** A continuación, **chupinazo y volteo de campanas**.*
- *21:00.* ***Bertso Afaria: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio** y **Julio Soto.** Pondrá los temas **Asier Ibaibarriaga.** En el Restaurante Kantabria. Entradas: 28 €. (Sagarbitxa - Kultu - Kantabria - ...eta kitto!). Organiza: "... eta kitto!".*

## iraila 8, Arrate eguna

- 10:00. Azitaingo surtidoretik irten eta **Arratera igoera**, Ama Birjinaren pausoen bide zaharretik. **Salda, txorizoa eta ardoa** banatuko dituzte Zesteroko iturrian Jai Batzordeak antolaturik.
- 10:00. **Kittonbola!**
- 10:30. **Kalejira** Eibarko Usartza Txistulari taldearen eskutik.
- 11:00. **Meza Nagusia** Arrateko Santutegian. Kezka dantza taldeak eta Usartza Udal Txistulari taldeak **Arrateko Amaren ezpata-dantza** egingo dute. Ondoren Arrateko Amaren **prozesioa** Usartza Txistulari taldeak, Jainaga eta Narbaiza trikitilariak, Kezka Dantza Taldeak, bertsolariek eta agintariek lagundurik **Arrateko Amaren ezpata-dantza** egingo dute.
- 12:30. Kezka Dantza Taldeak eta Usartza Udal Txistulari Taldeak **Arrateko Amaren Dantzak** aurkeztuko dituzte zelaian: ezpata-dantza eta makila txikien dantza.



## *8 septiembre, Día de Arrate*

- *10:00.* ***Subida a Arrate** desde Azitain, por el camino de los pasos de la Virgen. Reparto de **caldo, chorizo y vino** en la fuente de Zestero organizado por la Comisión de fiestas.*
- *10:00.* ***Kittonbola!***
- *10:30.* ***Pasacalle** con la Banda de Txistularis Usartza.*
- *11:00.* ***Misa Mayor** en el Santuario de Arrate y espata-dantza de la Virgen de Arrate. A continuación, **procesión** con la Banda de Txistularis Usartza, los trikitilaris Jainaga y Narbaiza, Kezka Dantza Taldea, bertsolaris y autoridades y espata-dantza de la Virgen de Arrate.*
- *12:30.* ***Danzas de la Virgen de Arrate** con Kezka Dantza Taldea y la Banda de Txistularis Usartza en la campa de Arrate.*
- *13:30. Actuación de **trikitilaris y bertsolaris**.*
- *14:30.* ***Comida de Hermandad** en el Restaurante Krabelin.*
- *17:00. Actuación de los **bertsolaris** .*
- *17:30 - 20:30.* ***LLENATE...¡PERO DE EMOCION! Campaña informativa y educativa sobre el consumo de alcohol**. Sasoia Elkartea (Educación para la salud y prevención de drogodependencias) realizará pruebas de alcoholemia. Organiza: Ayuntamiento de Eibar y Dirección de Drogodependencias del Gobierno Vasco.*

- 13:30. **Trikitilari eta bertsolarien saioa**.
- 14:30. **Lagunarteko Bazkaria Krabelin** Jatetxean.
- 17:00. **Bertsolarien saioa**.
- 17:30 - 20:30. ***BETE ZAITEZ... BAINA EMOZIOZ!* Alkoholaren inguruko kanpaina informatzaile eta hezitzailea.** Sasoia elkarteak (Osasun heziketa eta drogamenpekotasunen prebentzioa) alkoholemia kontrolak egingo ditu. Antolatzaileak: Eibarko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Droga Gaietako Zuzendaritza.
- 17:30. **Dantza solte txapelketa** 10 bikote onartuko dira, aldez aurretik gonbidatuak (bost 15 urtetik gorakoak eta beste bost beherakoak).
- 19:00 - 23:00. **Dantzaldia LUHARTZ** taldearekin.

- 17:30. ***Concurso de baile al suelto***. *10 parejas, por invitación (5 mayores y 5 menores de 15 años).*
- 19:00 - 23:00. ***Verbena*** *con el grupo* **LUHARTZ**.



## irailak 12, Kofradia eguna eta baserritar jubilatuen eguna

- 10:30. **Simón Aldazabal XV. Antxitxiketaldia. Alberto Zabalari omenaldia**. Eibarko Klub Deportibotik irten eta Arrateraino (Orbeko bidetik).
- 11:00. **Meza Nagusia** bertsolariekin. Meza ostean, aurreskua Kezka Dantza taldearen eskutik. Ondoren **prozesioa** Usartza Txistularien Bandak lagunduta eta eskaintza euren Zaindariari.
- 12:00. **Pilota partiduak.** Antolatzailea: Eibarko Klub Deportiboa.
- 12:00. **Paella lehiaketa**.
- 12:30. **Herri kirolak**.
- 14:00. **Pilota eta Paella lehiaketaren sari banaketa**.
- 14:30. **Jubilatuentzako bazkaria** KANTABRIA Jatetxean. Baserritar nagusiei opariak banatuko zaizkie. Trikitilari eta bertsolariek ere parte hartuko dute.
- 17:30. **Idi probak**.

Antolatzailea: **Eibarko Udala**
Laguntzaileak: **Andirao Elkartea, "... eta kitto!", Betikuak, Eibarko Klub Deportiboa eta Kezka Dantza Taldea**

## *12 septiembre, Día de la Cofradía y de los jubilados y jubiladas*

- 10:30. ***XV Carrera pedestre Simón Aldazabal***. ***Homenaje a Alberto Zabala***. *Salida en el Club Deportivo y subida hasta Arrate por el camino de Orbe.*
- 11:00. ***Misa Mayor*** *con bertsolaris. A continuación,* ***aurresku*** *a cargo de Kezka Dantza Taldea y* ***procesión***, *acompañada por la Banda de Txistularis Usartza y ofrenda de los txistularis a su Patrona.*
- 12:00. ***Partidos de pelota.*** *Organiza: Club Deportivo Eibar.*
- 12:00. ***Concurso de paella***.
- 12:30. ***Deporte rural***.
- 14:00. ***Entrega de premios de pelota y del concursos de paella***.
- 14:30. ***Comida de jubilados*** *en el Restaurante KANTABRIA. Reparto de regalos a los mayores y actuación de* trikitilaris *y* bertsolaris.
- 17:30. ***Pruebas de bueyes***.

*Organiza:* ***Ayuntamiento de Eibar***
*Colaboran:* ***Andirao Elkartea, "... eta kitto! ", Betikuak, Club Deportivo Eibar y Kezka Dantza Taldea***



**irailak 19**
**ARRATE IZENEKOEN JAIAREN XIII. URTEURRENA**
**Arratera igoera** Ama Birginaren pausoen bide zaharretik, meza, bazkaria, jolasak eta dantzaldia.

***19 septiembre***
***XIII FIESTA DE LAS ARRATES***
***Subida a Arrate*** *por el camino de los pasos de la Virgen. Misa, comida, juegos y baile.*

# LA VIRGEN DE LA BIEN APARECIDA



**iraila 11**
- 17:30. **Toka, igel-toka eta "cuchillo" txapelketak**.
- 20:00. **Sardina jana**.

**irailak 18**
- 16:00. **Tute txapelketa**.
- 20:00. **Silioko pitero eta Los Corrales de Buelnako panderoen emanaldia**, Ipuruako bolatokian eta Casa de Cantabrian.

**irailak 19**
- 12:00. **Meza** San Agustin parrokian.
- 13:00. **Piscolabisa**.
- 14:30. **Lagunarteko bazkaria**.

**irailak 25**
- 20:00. **Ronda de Tanos** abesbatzaren **emanaldia** San Pio X parrokian.

***11 septiembre***
- *17:30. **Campeonatos de toka, rana y cuchillo**.*
- *20:00. **Sardinada**.*

***18 septiembre***
- *16:00. **Campeonato de tute**.*
- *20:00. **Actuación** de los **Piteros de Silio y panderetas de Los Corrales de Buelna** en la bolera de Ipurua en la Casa de Cantabria (Jardiñeta).*

***19 septiembre***
- *12:00. **Santa Misa** en la parroquia de San Agustín.*
- *13:00. **Piscolabis**.*
- *14:30. **Comida de Hermandad**.*

***25 septiembre***
- *20:00. **Actuación** del coro **Ronda de Tanos** en la parroquia de San Pio X.*

antolatzailea **Casa de Cantabria** *organiza*

# AGINAko JAIAK
# *FIESTAS DE AGINAGA*



**irailak 28 - San Miguel bezpera**
- 18:00. **Kanpai iraulketa** eta **txupinazoa**.

**irailak 29 - San Miguel eguna**
- 11:00. **Meza nagusia** abesbatza eta Usartza txistulari bandarekin.
- 12:00. **Lunch-a** eta **umeendako jolasak**.
- 14:00. **Lagunarteko bazkaria** Usartza txistulari bandarekin.

***28 septiembre***
***Víspera de San Miguel***
- 18:00. ***Volteo de campanas y chupinazo**.*

***29 septiembre***
***Día de San Miguel***
- 11:00. ***Misa mayor** con coro y la Banda de Txistularis Usartza.*
- 12:00. ***Lunch** y **juegos infantiles**.*
- 14:00. ***Comida de hermandad**, con la Banda de Txistularis Usartza.*

**urriak 2**
- 17:00. **Briska txapelketa**.
- 17:30. **Umeendako jolasak: pelota partiduak, diskoteka** eta **txokolate jana**.
- 21:00. **Lagunarteko afaria**.
- 23:00. **Suzko erroberak**.
- 23:00. **Erromeria, KUPELA taldearekin**. Goizaldera, **txokolate jana**.

**urriak 3**
- 11:00. **Meza nagusia GORUNTZ** abesbatzarekin.
- 11:45. **ZERUTXU dantza** taldearen emanaldia.
- 12:30. **Lunch**-a eta **Gorritiren abereak**.
- 14:30. **Paella jana herrikoia**.
- 17:00. **Idi probak.** Pisu librean bustarri bat eta kintopeko bi bustarri.

***2 octubre***
- 17:00. ***Campeonato de brisca**.*
- 17:30. ***Juegos infantiles: partidos de pelota, discoteca** y **chocolatada**.*
- 21:00. ***Cena de hermandad**.*
- 23:00. ***Fuegos artificiales**.*
- 23:00. ***Romeria, con el grupo KUPELA**. De madrugada, **chocolatada**.*

***3 octubre***
- 11:00. ***Misa mayor** con el coro **GORUNTZ**.*
- 11:45. *Actuación de **ZERUTXU** dantza taldea.*
- 12:30. ***Lunch** y **Gorriti y sus animales**.*
- 14:30. ***Paellada popular**.*
- 17:00. ***Pruebas de bueyes**.*

antolatzailea **Agiña Elkartea** *organiza*

# ERREKA MARI

**Txotxongilo Taldea**

**zapatuko ipuina** **cuentacuentos**

**irailak 25 *septiembre*** 18:00 **Umeen liburutegia - *Biblioteca infantil***



Euskal Mitologiako pertsonaiak hartxen ditu oinarritzat **Erreka Mari** elezaharrak: ibaiko jeinuak diren lamiak. Ezberdina delako, **Erreka Mari**k jasan behar izaten dituen zailtasunak kontatzen dizkigu antze<kizunak, umorez eta samurtasun handiz.
Obra hau da gure errepertorioko istoriorik antzeztuena, maitasuna zer den ondotxo dakiten, inguruaren zaintzaz arduratzen diren eta besteekiko errespetua aintzat hartzen duten haurren hizkuntzan mintzo zaigun antzerki-lana da.

***Erreka Mari*** *es una leyenda basada en un personaje de la Mitología Vasca, las lamiñas, genios del río. Con humor, con ternura nos cuenta las dificultades que tiene que pasar* ***Erreka Mari*** *por ser diferente. Es la historia más representada de nuestro repertorio y habla con lenguaje que los niños entienden bien del amor, del cuidado del entorno y del respeto a los demás.*

***Txotxongilo Taldea*** *nace en 1971 para dedicarse al teatro de Marionetas para público infantil y afmiliar, por iniciativa de* ***Enkarni Genua y Manolo Gómez****. Desde entonces ha trabajado sin interrupción estrenando 22 espectáculos, editado 14 cuentos, varios libros didácticos y 21 discos.*
*Miembros de la UNIMA Euskalherria, han tomado parte en diferentes actividades relacionadas con el Teatro de Marionetas:* ***cursillos, congresos, conferencias, universidad, televisión, exposiciones, etc...***
*En este momento tienen en el repertorio 14 obras de diferentes formatos, aun cuando todas tienen en común lo que consideramos el "sello" de la casa:* ***un gran cuidado de la plástica del espectáculo y un gran respeto hacia nuestro público****, niños y niñas de 3 a 10 años y cuantas personas estén interesadas por la infancia.*



Texto:
**Enkarni Genua**
Titiriteroak:
**Enkarni Genua**
**Manolo Gómez**
Txalapartariak:
**Ixiar Jauregi**
**Lara Michela**

# DIBUJO UDAL ESKOLA
# ZERAMIKA UDAL ESKOLA

**matrikulazioa: irailak 15 arte - *hasta el 15 de septiembre***

Informazioa: PEGORA Untzaga plaza Tel . 010 - 943 708 400

**Artisten txanda**

Datorren irailaren 15era arte zabalik daude Eibarko Zeramika Eskolan edota Dibujo Eskolan matrikulatzeko ateak. Artearen munduan murgildu eta eskulanak egiteko gogotsu bazaude, beraz, badakizu oraindik garaiz zabiltzala. Hamaika dira bi eskolek eskaintzen dituzten zerbitzuak, edozein informazio nahi izanez gero 943-708439 telefono zenbakira deitu.

Ez da funtsezkoa jardun hauetan aditua izatea, ikasteko gogoa edukitzea nahikoa da artista gisa lehen urratsak emateko. Beraz, badakizu, buztinaren lanketan edota marrazketan aritzeko interesa baduzu... Hau da zure aukera!




**Buztina landuz**

Oraindik ere zabalik dago buztinarekin objektuak lantzen ikasteko aukera, eta Zeramika Eskolan matrikulatzeko lekua badago. 8 urtetik gora dituen edonork hartu dezake parte, eta taldeak oso murriztuak izanik (7 lagun) arreta pertsonalizatua eskaintzen da. Ez da arte honen inguruan inongo ezagutzarik behar eskolan parte hartu ahal izateko, gogotsu ekitea da behar den bakarra.

Aurreko urteetan bi eguneko klaseak ematen ziren, bakoitza bi ordukoa. Aurten, berriz, astean lau orduko lanketa egiteko aukera bere horretan mantentzen bada ere, bide berri bat zabaldu da jendea eskolara erakarri asmoz. Orain, astean egun batez joateko parada zabaldu da eta buztinaren lanketan bi ordu soilik ematea. Berrikuntza honekin, matrikulazioaren prezioa ere erdia izango da.

Ohiko teknika moldeak lantzeaz gain, urtero *Raku* eskulturak egiten dira, ekialdeko zeramika teknika tradizionalari jarraiki. Bakoitzaren interesak kontuan hartzen dira egunerokotasunean, eta hortaz, programa pertsonalizatuak eramaten dira aurrera.

# BEGIRALE TITULUA ATERATZEKO IKASTAROA
# *CURSO DE OBTENCIÓN DEL TÍTULO DE MONITOR*

**Hartzaileak**: baldintza hauek betetzen dituztenak:

• 18 urte baino gehiago edukitzea edota 2011ko abuztuaren 31a baino lehen betetzea.
• Euskaraz jakitea.
• Eibarren erroldatua egotea.

**Datak**: 2010eko irailetik 2011ko urtarrilera. Ikastaroak lau irteera asteburu osokoak izango ditu.

**Prezioa**: 450 €. Asteburu osoko irteerak preziotik kanpo daude. Asteburu bakoitzeko 32 €.

Ikastaroa euskaraz izango da.



**Destinatarios/as**: los/as que cumplan estas condiciones:

• Tener más de 18 años, o cumprirlos antes del 31 de agosto de 2011.
• Saber euskara.
• Estar empadronado en Eibar.

**Fecha**: septiembre del 2010 a enero del 2011. El curso tendrá cuatro salidas de fin de semana.

**Precio**: 450 €. Las cuatro salidas de fin de semana no se incluyen en el precio. Cada fin de semana cuesta 32 €.

El curso se realizará en euskara.

informazioa eta izenemateak **irailak 10 arte - *hasta el 10 de septiembre* PEGORA** *información e inscripciones*

# ARGAZKIGINTZA DIGITALA: LEHEN URRATSAK
# *INICIACIÓN A LA FOTOGRAFÍA DIGITAL*



**Argazkigintza dijitala ezagutuko da eta oinarrizko kontzeptu eta teknikak** ikasiko dira, **baliabide informatikoak erabiliz. Iraileko, urriko eta azaroko astelehen eta azteazkenetan 19:00etatik 21:30era** izango da **PORTALEA**n.
Hartzaileak **16 urtetik gorakoak** izan behar dira.
Ikastaroa Eibarren erroldatuta daudenentzat 47 €koa izango da eta 79 €koa Eibarren erroldatuta ez daudenentzat.
Ikasle kopurua: gutxienez 5 ikasle, eta gehienez 16 ikasle.
Irakaslea: **Jose Valderrey**
Ikastaroaren hizkuntza: **gaztelera**.

*El objetivo del curso es acercarse a la fotografía digital y aprender una serie de **conceptos y técnicas básicas** utilizando **herramientas informáticas.** Se realizará en **PORTALEA** durante los meses de **septiembre, octubre** y **noviembre**, los **lunes y miércoles de 19:00 a 21:30 h**.*
*Está destinado a personas interesadas en general a partir de **16 años**.*
*El **precio del curso** es de 47 € para personas empadronadas en Eibar y 79 € para las personas no empadronadas en Eibar.*
*Número de alumnos/as: mínimo 5, máximo 16.*
*Profesor: **Jose Valderrey**.*
*Idioma del curso: **castellano.***

informazioa eta izenemateak **irailak 6 - 17 septiembre** **PEGORA** *información e inscripciones*

# SORMENAREN POTENTZIAZIOA
# *POTENCIACIÓN DE LA CREATIVIDAD*

**Tailer Psikohezitzaileak** ***Taller Psicoeducativo***
**urritik abendura - *de octubre a diciembre***
**astelena, asteartea** 9:30 - 11:30 ***lunes, martes***
**PORTALEA**

**Sormenezko margolaritza** oinarri hartuta, kanpoko mundua hautemateko dugun modu berezi horren inguruko gogoeta egingo dugu eta gure barruko munduan irauten duten irudiak adiraziko ditugu kanpoaldera. Maiz, hitzak ez dira nahikoa izaten gure barruko ñabardura denak aditzera emateko eta kolore zein formen erabilerarekin, lengoaiaren gainetik dagoen tresna bat garatzeko gai izan gaitezke. Beste era batean ikasteko aukera eman diezaiokegu gure buruari, sormenezko gaitasunari eta potentziazioari esker, autokonfidantza indartuz eta finean, gure bizitzari onurak ekarriz.
Tailer honetan parte hartzeko, ez da beharrezkoa aurretik ezagutza artistikorik edukitzea, izan ere, ikuspegi indibiduala du eta sormenezko gaitasuna pertsonala da.

*Mediante la **Pintura Creativa** reflexionaremos sobre nuestra particular manera de percibir el mundo externo y expresaremos hacia el exterior imágenes que permanecen en nuestro mundo interno. A veces, las palabras no parecen ser suficientes para expresar todos los matices de nuestras sensaciones más internas y con el uso de los colores y las formas, podemos ser capaces de desarrollar una herramienta que transcienda al lenguaje. Nos podemos dar la oportunidad de aprender de otra manera, gracias a la potenciación y el desarrollo de nuestras capacidades creativas, fortaleciendo la autoconfianza y aportando, finalmente, beneficio a nuestras vidas.*
*No son necesarios conocimientos artísticos previos para participar en este taller ya que el enfoque es individual y la capacidad creativa personal.*
*El taller está diseñado para grupos reducidos (5 a 10 alumnos).*

informazioa eta matrikula tel. 622053933 943821353 *información y matrícula*

## AEK EUSKALTEGIA

**matrikulazioa** ***matriculación***

**irailak 1 - 28 *septiembre***

**informazioa AEK EUSKALTEGIA *información***

Sostoatarren, 1 Tel . 943 201 379

## UDAL EUSKALTEGIA

**matrikulazioa** ***matriculación***

**irailak 2 - 24 *septiembre***

**informazioa UDAL EUSKALTEGIA *información***

Bista Eder, 10 Tel . 943 700 912

## AFARIKETAN

**matrikulazioa** ***matriculación***

**irailak 20, 21 *septiembre*** 16:00 - 18:00 **ludoteketan** (Amaña, Urki, Urkizu)

**irailak 22, 23 , 24, 25 *septiembre*** 10:00 - 13:00 **PORTALEA**n.

Informazioa: ASTIXA Zezenbide 7 Tel . 943 206231

***Curso Internet+e-administración Kzgunea***
- **irailak 6 - 17 *septiembre*** ...........9.00-11.00.
- **irailak 6 - 17 *septiembre*** .........16.00-18.00.
- **irailak 20 *septiembre* - urriak1 *octubre*** 11.00-13.00.
- **irailak 20 *septiembre* - urriak1 *octubre*** 18.00-20.00.

***Redes Sociales*** *(Conoce Facebook)*
- **irailak 2 *septiembre*** ..................9.00-11.00.

***Tratamiento de imagénes digitales***
- **irailak 6 - 9 *septiembre*** ...........11.00-13.00.

***Softonic*** *(Descarga juegos y programas gratuitamente)*
- **irailak 13 *septiembre*** .............11.00-13.00.

***Ebay*** *(Compra y vende en internet)*
- **irailak 21 *septiembre*** .............16.00-18.00.

***Paypal*** *(Paga de una forma segura en internet)*
- **irailak 24 *septiembre*** ............de 9.00-11.00.

***Draw*** *(Aprende a realizar gráficos vectoriales)*
- **irailak 27 *septiembre*** ................9.00-11.00.

***Jaycut*** *(Corta y realiza proyectos de video, musica y fotos)*
- **irailak 29 *septiembre*** ................9.00-11.00.

**IT TXARTELA**
- **irailak 1-20-28 *septiembre*** ........16.00-18.00
- **irailak 7-13- *septiembre*** ............18.00-20.00
- **irailak 10-15- *septiembre*** ..........11.00-13.00
- **irailak 22-30 *septiembre*** .............9.00-11.00

## PEGORA

**Herritarren zerbitzurako bulegoa / *Oficina de servicio a la ciudadanía***

Untzaga Plaza, 1 Tel: 010 / 943 708 400 - pegora@eibar.net

**irailak 1 - 15 *septiembre***

| | | |
|---|---|---|
| astelehena - ostirala | 9:00 - 13:30 | *lunes - viernes* |

**irailak 16 - 30 *septiembre***

| | | |
|---|---|---|
| astelehena - ostirala | 9:00 - 13:30 | *lunes - viernes* |
| astelehena - osteguna | 17:00 - 19:30 | *lunes - jueves* |

## PORTALEA
Bista Eder, 10 tel. 943 708 439 cultura.ei@eibar.net

**irailak 1 - 7 *septiembre***

| | | |
|---|---|---|
| astelehena - ostirala | 9:00 - 20:30 | *lunes - viernes* |

**irailak 8 *septiembre*** **itxita - *cerrado***

**irailak 9 - 30 *septiembre***

| | | |
|---|---|---|
| astelehena - ostirala | 9:00 - 21:30 | *lunes - viernes* |

**irailaren azken asteburuan zabalduko da / *apertura el último fin de semana de septiembre***

| | | | |
|---|---|---|---|
| larunbata | 10:00-13:30 | 16:00 - 21:00 | *sábado* |
| igandea | 10:00-13:00 | 16:00 - 21:00 | *domingo* |

**ERAKUSKETA ARETOA** ***SALA DE EXPOSICIONES***

| | | |
|---|---|---|
| asteartea - igandea | 18:30 - 20:30 | *martes - domingo* |

**JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIA** tel. 943 708 437 biblioteca.ei@eibar.net

**irailak 1 - 19 *septiembre***

| | | |
|---|---|---|
| astelehena - ostirala | 9:00 - 20:30 | *lunes - viernes* |

**irailaren 8an eta asteburuetan itxita / *cerrada el 8 de septiembre y los fines de semana***

**irailak 20 - 30 *septiembre***

| | | | |
|---|---|---|---|
| astelehena - ostirala | 9:00 - 13:30 | 16:00 - 20:30 | *lunes - viernes* |
| asteburuetan | 10:00 - 13:00 | 16:00 - 20:00 | *fines de semana* |

**ARMAGINTZAREN MUSEOA** tel.943 708446 museo.ei@eibar.net ***MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA***
www.armia-eibar.net

| | | |
|---|---|---|
| asteazkena - ostirala | 16:00 - 20:00 | *miércoles - viernes* |

**irailaren azken asteburuan zabalduko da / *apertura el último fin de semana de septiembre***

| | | |
|---|---|---|
| larunbata | 16:00 - 20:00 | *sábado* |
| igandea | 10:00 - 13:30 | *domingo* |

## *teatro* COLISEO antzokia
Merkatu kalea, 2 tel. 943 206 342 cultura.ei@eibar.net

sarrerak / entradas
**leihatila** - emanaldi egunetan ordu bat lehenago.
***taquilla*** - *una hora antes los días de función.*
SERVIKUTXA TELEKUTXA 943 001 200 www.kutxa.net

## ERROTA GAZTELEKUA
Karmen, 3 tel. 943 820 105

**irailak 1 - 12 *septiembre*** **itxita / *cerrado***

| | | |
|---|---|---|
| astelehena - osteguna | 18:00 - 20:00 | *lunes - jueves* |
| ostirala | 17:00 - 20:30 | *viernes* |
| larunbata, igandea | 16:30 - 20:30 | *sábado, domingo* |

## Kz GUNEA
Karmen, 3 tel. 943 120 390

www.kzgunea.net

| | | |
|---|---|---|
| astelehena - ostirala | 9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00 | *lunes - viernes* |

## HEZKUNTZA ESPARRUA/*COMPLEJO EDUCATIVO*
Otaola Hiribidea, 29 tel. 943 208 444

www.eibarres.net

argitaritzailea: Eibarko Udala / koordinatzailea: Kultura, Euskara eta Hezkuntza Saila
idatziak, diseinu eta maketazioa: ARBI Edición / inprimategia: GERTU / Tirada: 7.000 ale

# FERNANDO BEORLEGUI BEGUIRISTAIN: GOGOAREN PINTZELKADA GARRATZAK *PINCELADAS ÁCIDAS DEL PENSAMIENTO*

**irailak 17 *septiembre* - urriak 12 *octubre* PORTALEA**

*Portalea acogerá las obras del relevante pintor realista y prestigioso dibujante Fernando Beorlegui, que murió hace dos años a causa de una larga enfermedad. Aunque era navarro de nacimiento, desarrolló el grueso de su trabajo en Eibar, ciudad en la que residió desde los 28 años. La exposición, ideada con motivo de rendir un merecido homenaje al artista, acogerá más de 100 obras del aclamado pintor.*



## Pintzelkadak gogoan

Beorleguik gaztetatik izan zuen margolari izateko grina, eta urteek aurrera egin ahala, ugariak izan dira bere ibilbide profesionalaren baitan eman diren aldaketak. Hortaz, etengabeko eboluzio horren harira, ezinezkoa da bere obrak korronte batekin zuzenean lotzea. Artistak ez zuen ulertzen margolari batek zer dela eta izan behar zuen leiala ideia, korronte edo mugimendu bati.

Zorrotza eta disziplinatua zen bere lanean Fernando Beorlegui, eta teknikoki margolari klasikoen lanetara hurbildu zen. Egiten zuen horretan sinesten zuen, eta dena ematen zuen obra bakoitzaren lanketan. Gainera, bere margo propioa egituratzen zuen, horrela margolanek iraunkortasun gehiago eta kalitate handiagoa erdiesten baitzuten. Bere lan egiteko moduak berezi egin zuen artistaren obra, eta eragin izugarria izan zuen euskal margogintzaren munduan.

### Ahaztezina oroituz

Beorlegui euskal margolari handienetako bat izanik, ederki islatu zuen bere garaia eta gizartearekin oso kritiko izan zen. Bere semeak, Mikel Beorlegik, erakusketak tresna baliagarri bat izan nahi duela adierazi du; bere aitaren obra ikusi, berarekin ikasi, ikertu eta, nola ez, gozatzeko. Margolari entzutesuaren ibilbide osoa erakustea da erakusketaren xede nagusia, eta ezinbestean, irudi sorta batekin beteko da helburu hori. Era berean, artistaren inguruko denak biltzen dituen liburu bat ere aurkeztuko da.

Eibar, hala ere, ez da artistaren lanak ikusgai izango diren udalerri bakarra. Uda Zarautzen pasa dute Beorleguiren obrek, eta neguan Lizarran ere izango dira. Hiru herriak oso esanguratsuak izan ziren artistaren bizitzan, eta denek egin nahi diote omenaldia margolariari. Gaztaroa Lizarran pasa zuen, azken 50 urteetan Eibarren bizi izan zen eta Zarautzen denbora asko pasa zuen eta lagun ugari zituen bertan.

Herri bakoitzean erakusketa ezberdina egitea da intentzioa, tokian tokian bertako giroarekin loturiko koadroak erakutsiko dituzte. Funtsezko obra batzuk berdinak izango diren arren, Eibarren industria eta hirigunearekin lotutako artelanek osatuko dute erakusketaren mamia. Gainera, margolanez gain, zenbait eskultura eta grabatu ere egongo dira ikusgai. Eibarkoa izango da gauzatuko den erakusketarik handiena obren kopuruari dagokionez, Beorleguiren 100 artelan inguru izango dira ikusgai Portaleko erakusketa aretoan.